

Aurten bete da gerra zibila amaitu zeneko 70 urteurrena eta Literatura Ikerketa Batzordeko abagunetzat hartu dugu gertakari horri lotuta euskaraz idatziriko literaturari begirada bateratzailea emateko. Gertakari hura XX mendeko gertakari traumatikoena izan da gure komunitatearentzat eta ahanzten zaila. Are gaitzago, irabaztunek berrogei urteko diktadura ezarri zutelarik eta euren bertsoaren araberako diskurtso historikoaren zamaz isilarazi zutelarik, besteen ahotsa. Demokraziaren garapen osteko zeregina izan da oroimen kolektiboari bide ematea eta "Memoria historikoaren legea" bezalakoetan mamitu da (52/2007 deritzan lege horrek dioenez "Memoria Historikoaren Legearen bidez, Gerra zibilean eta diktaduran zehar jazarpenik edo indarkeriarik pairatu zutenen aldeko neurriak ezartzen dira eta haien eskubideak aitortzen eta hedatzen dira". "Ley por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas a favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la Guerra Civil y la dictadura". Ez da eztabaidarik gabeko legea izan ordea, dakigunez, aitormen eta neurri horien ezarpenak ere zer esana eman du.

Elkargune honen helburuen aipamenetan esaten den moduan, euskal literaturan gerra zibilaz egindako errepresentazioa, gerrak izandako islapenez mintzatuko dira hizlariak, eta metodologia nahiz ikuspuntu ezberdinetatik abiatutako planteamenduak egingo dituzte, elkarren osagarri bilakatu nahi duten perspektibak erabiliz.

Nola nahi ere, hainaldi luzean zehar idatziriko literatura produkzioari buruz xeheki jardutea nekeza da euskal literatura bezain esparru murrizteko literaturaz ari bagara ere. Gerrak materia literario guztiz erakargarriak dira idazleentzat, mugako egoeratan kokatzen baitu gizakia eta haren alderdi hoberenak eta okerrenak ateratzeko gaitasuna du, idazleak horixe du behar, aukera bat gizakiaren baloreen zirrikituetan sartzeko. Izan ere, gertakari historikoen nondik-norako eta datu objektiboak, arrazoiak eta eragileak zorrozki pilatu eta antolatu behar ditu historiak, literaturak aldiz, eskuak libre behar ditu, memoria intimoak eta subjektibitateak gertakari horien harira egin duen

elaborazio pertsonalaz jarduteko. Bizitutakoaren lekukotza emozionatua izango da batzuetan, besteetan, hausnarketa liriko sakona, bestetan gertakarien narrazio jakingarria... baina egileak lortzen duen komunikazio indarra eta gizaki orok uler ditzakeen edo bere egin dezakeen sentsazio eta emozioak adierazteko gai den neurrian bilakatuko da testu literario bizia. Ikuspegi partzialak: mikrohistoria, Primo Levik edo Carlo Ginzburg-en hitzetan esateko.

Inoiz, makrohistoriak ere idatzi dira: gerlei buruzko ikuspegi zabal eta askotarikoa emateko gaitasuna erakutsi du zenbait literatura idazlanek eta horren eredu aski ezagunak dira errusiarren eta frantziarren arteko gerraz diharduen Leon Tolstoiren 'Guerra y paz' (1869, Gerra eta bakea) edo 1959an idatzi arren duela gutxi ezagutzera emandako 1959an Vasili Grossman 'Vida y destino'. Ohiz besteko kasuak dira makrorelato horiek. Halere, salbuespen aipagarriak dira, biziki zaila baita emaitza literario bakar eta orohartzaileetan mamitzea gertakari belikoei buruzko hausnarketa.

Historiak eman ez lezakeen dimentsioa ematen dio literaturak memoriari: subjektibitatearen ikuspuntua babesten eta iraunarazten du, letra larriz idazten den historiaren aldea, bigarren eta hirugarren mailako pertsonaia eta gertakariei eskaintzen die arreta eta gaitasun berezia du gertakari orokor nagusi eta garrantzitsuen dimentsio pertsonala, galkorra adierazteko. Horregatik, gerra zibilak literatura gaia izaten iraungo du, gutaz, gure aurrekoen gure iraganaz eta errealitate larriari aurre egin behar dien gizaki oren esperientziak diharduelako. Espainiako gerra anai arteko gerra zelako, ordea, are larriagoa da aurkarien arteko tentsio emozionala, ondoko errepresioa berrogei urtekoa izan zelako, are handiagoa ondoko hausnarketaren mingostasuna. Handia da hausnarketarako pilatu den materiala eta 70. urteurren honetan eskuetara iristen zaizkigun azterketa eta saiolanek erakusten dutenez. Bada zer aztertu eta ikasi.

Nork eta zein asmorekin idatzi du Espainiako Gerra Zibilaz? Espainiako gerra kontatu zuten lehen idazleak atzerritarrak izan ziren, Brigada

Internacional zeritzenekin edo prentsako berri-emaile etorriak. Nazioarteko oihartzuna eman nahi zioten faxismoaren aurkako gerraren lehen batailari, zoritxarrez Bigarren Mundu Gerraren atariko bilakatuko zenari. Nazioarteko potentzien arreta erakarri foku honetara. Lehena André Malraux-ek europako potentziak ernatzeko gertatzen ari zenaz idatzi zuen 1937an *L'Espoir, sierra de Teruel* eleberria eta filma ere errodatu zuen. Guztiz interesgarria George Orwell-ek 1938an idatzi zuen *Homage to Catalonia*, [Omenaldia Kataluniari] non zorroztasunez aztertu zituen Errepublikako agintedunen artean garatu zen lehia politikoa eta ideologikoa, estalinistek troskisten aurka eginiko purgaren lekukotza emanaz. Hor ziren John Dos Passos idazle amerikarrak eginiko kronikak ere eta Jose Robles Pazos bere itzultzaile eta lagunaren asesinatuz ikertzeko ahaleginez idatzi da berriki saiolan interesgarria *Enterrar a los muertos* (2005) deritzana. Hor da guztietan ezagunena dena ere, 1939ko Ernest Hemingway-k *¿Por quién doblan las campanas? For Whom the Bell Tolls*. Errepublikazaleen aldeko narrazio epikoa.

Euskaraz garaiko prentsan aurki daitezke helburu propagandistiko hori bera duten testuak, baina baita bestelakoak ere, noski horren lekuko direlarik, esaterako, Tapia eta Leturiak trikitixaz lagundurik ezagutzera eman dituzten gerra garaiko koplak, Elgetakoak edota Pepe Bolunbururen "Gerrako gure ibilerak" izenekoak. Aipagarria gisa berean, Gernikako bonbardaketa gertatu eta egun gutxitara argitaratu zen liburuxka ere, non euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez euskaldunen bertsioa aldarrikatzen den eta suminduraz salantzen nazionalak eman duten bertsio iraingarria, errepublikazaleek berek erre zutela euskaldunen hiri sinbolikoa. Duela gutxi 2007an berrargitaratu da *Pamiela* argitaletxean eta Bernardo Atxagaren *Markak. Gernika 1937* liburuarekin batean banatu. Honela dio zati batek:

„Gernika'n, gau beltz artan etxerik-etxe ikusi nituan sugarren gixa, nere abotsa sugar biurtuta zuen biotzetara eldutzea nai nuke. Ez ezer erretzeko. Ez gorrotoari aizemateko. Ezta zuen inguruko gixa jardunaz, gure erria birrintzeko. Ez! Suak, erre ezezik, erre gabe berotzen eta garbitzen bai baitdaki: eta zuen biotzak, gorrotoz kiskaldu gabe, berotu bitez, anaiak. Leku, beste aldeko euskaldunak, leku egia! Gezurrak eta

itxumenak sortutako gorrotoa daukazuten euskaldun anaiok, euzkotarren eguzkia argitzen asi dan une ontan, Euskalerrria aztakatu nai digutela ikusi zazute.”

Testigantza ematea eta nazioarteko iritzia ernatzea zuten helburu irakurri dudana bezalako testuek. Geroztiko idazlanek berriz gertakarien lekukotza emate aldera edota Francoren erregimenaren zilegitasun falta salatzeke idatzi zuten. Ez zezan ahanzturak desagertarazi gertakarien protagonisten oroimena eta duintasuna. Hurrengo belaunaldietakoek aldiz hurbilketa literarioa dute lehentasun, eta historia eta moral aldetik egia bat aldarrikatzeko beharra. Gerra zibila gaia da eta eszenategia ere bai, bizitzaren ateka gaitzen gertalekua.

*Vida y destino* bezalako ikuspegi zabal orohartzaile handirik ez badugu ere, irakurleak Italo Calvinoren aholkua jarrai lezake: Italian Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan izan zen gerra zibila, *gerra partisana* deritzan 1943 eta 1945 arteko gerrako gertakariez diharduten narrazio literarioak “bateraturiko makrotestu baten gisan irakurri, hainbat aita-ama dituen narrazio liburu bakarra balitz bezala, borroka hartan parte hartu behar izan zutenen izenean hitz egiteko gai den obra gisa.

Esate baterako, Calvinoren aholkuak jarraituz bildu du berriki Ignazio Martínez de Pison-ek Espainiako Guda Zibilaren gaiaz diharduen narrazio sorta. Hautapena egin du gerra zibilaz idatzi duten Espainiako literatur sortzaileen emaitzen artean eta errepresentatiboenak eta kalitate hoberenekoak bildu “Partes de guerra” izeneko liburuan, narrazio laburren antologian. Sarrera eman die bere liburuan irabaztunei eta galtzaileei, gaztelaniaz idatzi dutenei eta gailegoz, katalanez eta euskaraz idatzi dutenei, gerra bizitu zutenei eta kontatu dietenaz idatzi dutenei edota fikzioa egin dutenei ere bai. Hor dira 35 idazleren artean Ignacio Aldecoa, Ramiro Pinilla, Max Aub, Mercè Rodoreda, Bernardo Atxaga, Pere Calders, Cèsar-August Jordana, Xosé Luís Méndez Ferrín, Lino Novás edo Manuel Rivas.

Esan liteke azken bi hamarkadetan areagotu dela oroimen oldea literaturan bezala zinemagintzan eta ugaritasun fenomeno horren harira eginiko

azterlanen biltze eta hausnarketari heldu diote literstur azterleek. Gure artean, 2008an Maria Jose Olaziregi irakasleak, LA GUERRA CIVIL Y SUS REPRESENTACIONES ponentzia aurkeztean A GUERRA CIVIL ESPAÑOLA NA NARRATIVA INFANTIL E XUVENIL biltzarrean. Irakurtzea merezi du Roig-Rechouren edizioan ezagutzera eman den biltzar-akten argitalpena (Ed.) Santiago de Compostela, Xerais, 2008) Artikulu hartan guda zibilak literaturan bezala beste arte garaikideetan izan duen errepresentazioa aztertzen zuen eta Espainiako kritika eta historiografia garaikideak azterketa honetan eginiko ekarpenak bildu eta balioztatzen ditu, historiak eta fikzioak sorturiko diskurtsoetan egiten duten errepresentazio moduaren inguruko hausnarketaosatzen duelarik.

Zehazki euskal literaturan gerra zibilak izaniko errepresentazioaren inguruan hasten dugun hausnarketa honetarako abiapuntu testuinguru emalea eta argigarria dela esan daiteke Olaziregiren artikulu horrek eskaintzen duen ikuspuntua eta era berean haren osagarri gerta daiteke, ikastaro honetan zehar garatuko den ibilbidea gerla zibilari buruzko literatur sorkuntzei buruzko azterketan.

Bestalde, fikzio narratiboan errepresentazioen azterketa lehen oinarriak eman zituen ezagutzera Jon Kortazarrek Argentinako Universidad Nacional de la Platan 2008an burutu zen "Siglos XX Y XXI. Memoria Del I Congreso Internacional De Literatura Y Cultura Españolas Contemporáneas" izeneko biltzar nagusian, non aurkeztu zuen "Memoria y Guerra civil en la narrativa vasca (1948-2007)" izenburua duen ponentzia, interneten argitaratua dena. Ezin ahantzi bestalde, gaiari buruzko aportazio berezitzen ekarpena, hots, Universidad Nacional de la Platako lehen kongresu horretan bertan beste bi hizlarik eginiko ekarpenak, hala nola, Euskal Herriko Unibertsitateko Amaia Serrano Mariezkurrenak, Albaro Rabellik, Iratxe Retolazak eta Ibon Egañak .

Horiek aipatuz ez da osatua gaur hona biltzen gaituen gaiak dagoeneko lanean jarri dituen ikerleen aipamena eta espero izatekoa da hiru egun hauetako hitzaldien ekarpenen artean bat izango dela bibliografia eguneratzea eta eginiko lanen berri ezagutzera ematea. Hala, bere osoan aurkezterik ez genukeen azterketa arloaren ildoen berri emateko.